

SASI-ESKOLA

ERAKUSLEEN IZENAK

AGERLEEN IZENAK

Erramon	GORBEÑA (Basilio).
Patši	LANDABURU (Felix).
Tšomin	SOTA Y ABURTO (R).
Koipetšu	MALAIZ-ETŠEBARRÍA (P).
Iñasio	AZURMENDI (J. M),
Kalis	GORBEÑA (Fernando).

Beste lagunen izenak: Malaiz-Etšebarría (Z.), Arostegui (N).

Guztiok zirean Bilboko Jardines-kalean dagoan Ikastetseko laguntzuak.

Bilboko Euskaldun Biltokian agertu eben eresi-irautsi au 1897-ko Epaiñaren 1^{an}.

SASI-ESKOLA

(Agirian oian edo zugazti bat, eta bertan zazpi edo zortzi mutiltsu kastor-ka olgetan.)

LENENGO AGERRALDIA

TŠOMIN, KALIS, ERRAMON, IÑASIO, KOIPETŠU

TŠOMIN. Bi, bi atara dodaz.
KOIPETŠU. Eu az orain Kalis.
ERRAMON. ;Kutuna aparta eztodanean! eztok urrun ibili.
IÑASIO. (laurtita gero) Kontšo, uts oin bere.
KOIPETŠU. (laurtitakoan.) Bat, bi... et... et... et ;pizka bat egaitik!
ERRAMON. ;Koipetšu barriz *suertosoago* da!
KOIPETŠU. ;*Suertoso* bai! Nik iakin dakit eta... ez-takianari putši putši eragiten dautsat.
ERRAMON. ;Nok eztaki e? ;Nok eztaki? ;Gura dok zein geiago?
TŠOMIN. Tira isilik, tira isilik. Neu naz oin.
ERRAMON. Kalis da; ezaz i, Kalis baiño.
TŠOMIN. Neu naz.
ERRAMON. Ezetz, Kalis da-ta ;baaaa!
TŠOMIN. Iaurti daiala ba.
ERRAMON. Ia Kalistšu. (Kalisek intšaurra iaurti bei.)
ERRAMON. Bi.
KOIPETŠU. Ez bi, ez bi, eztau markea ondu-ta.
ERRAMON. Baietz: orra.
KOIPETŠU. Ezetz: ona.
ERRAMON. Bai.
KOIPETŠU. Ez.
ERRAMON. Bai.
KOIPETŠU. Ez.
ERRAMON. Bai.

KOIPETŠU. Ez.
TŠOMIN. Tira isilik, tira isilik; zozo-kumaak legez egon barik.
KOIPETŠU. Manu ta Kalis alkar artuta dagoz, da Manu beti dago *drogak* ataraten. Enaz ibiliko ni.
ERRAMON. *Drogosoago* az i...
KOIPETŠU. I geiago.
ERRAMON. Ez.
KOIPETŠU. Bai.
ERRAMON. Ez.
KOIPETŠU. Bai.
ERRAMON. Ez.
KOIPETŠU. Bai.
TŠOMIN. Isilik egoteko.
ERRAMON. Koipetsuk galduten dabenean... a, iñok errua.
KOIPETŠU. Gero... Io barik gero.
ERRAMON. Io ba, io ba (lagita diñoz berba onek.)
TŠOMIN. Gagozan bake bakean. Aiko Patši non datorren. Au bere ezta ioan eskolara. *Aniñoa* dauko ta... zapatua da ta... Ze la-rri, baia!
IÑASIO. Tira aurrera. ;Ze Patši ta Patši-ondo? Ie-zarri or, Erramon.
ERRAMON. (Lengo tokian, istarrak zabalik dabezala iezarrita.) Ia, Ka-listšu. (Puzkatšu baten biardue kastorka.)

BIGARREN AGERRALDIA

LENGOAK ETA PATŠI

PATŠI. (Arpegi mukerraz da beren arterako.) ;Onek emen oindiokarren! Ezin artu izango dot zo-zabiea.
TŠOMIN. Sasi-eskola ;e, Patši?

PATŠI. ;Zetara ioango naz eskolara? ;Maisuak beien ganean miñagaz kurutze bat eragiteko? Enabil.
TŠOMIN. Ondo egiña.

PATŠI. Zuek bere eskolara barik je?
 TŠOMIN. Eguraldi ona da ta... Zapatua da gaur da, biar...
 PATŠI. Biar... Domekea ¿ta zer?
 TŠOMIN. Astelenean maisua ezta gomuta izango.
 PATŠI. Nireaz, bada, gomuta izango da.
 KOIPETŠU. Tšomin, eu az oin.
 TŠOMIN. Banoa. Eztok, Patši, ik iokatu nai?
 PATŠI. ¿Nik? Ezta... (larri beite.) ¿Zer egin dot nik eskolara ez ioateaz! ¿Ederrak emongo daustaz astelenean maisuak! ¿Eta zegaitik? ¿Euskeraz berba egin dodalako! ¿Zer egingo dot bada? Barru-barrutik urteten daust eta... ¿Zer galduten etedau maisuak, guk euskeraz egiñaz?—Beragaitik tšarto esan eztaigun edo batek badaki zegaitik izango dan. Bestela ¿zegaitik izango da?
 ERRAMON. Koipetšu, i ez az, Kalis da.
 KOIPETŠU. ¿Nok esan dau?
 ERRAMON. Kalis dala. Ia Kalistšu.
 PATŠI. (¿Onetariko bat edo bati *aniġoa* emon al

baneuskeo! Baiña eskolatik kanpoan eztabe artu nai izango, neuk bere eztot nai izaten-da. Ganera maisua aurrean egonezik, eztabela euskeraz egin esango leukee. Ai Erramon, Erramon, ederra egin daustak. Neuk euskeraz egitearren jak egin eustan egitekoa! *Un nido tengo!* erderaz esan eustan, *un nido más hermoso!* ¿*De qué?* itandu neutsan nik; eta berak *De esos pájaros negros...* ¿*cómo es pues?* ¿*cómo es pues?* Eta nik, kirten onek, «zozoak» esan neutsan kokolo bat egiñik. Eta berak orduan *tómate anillo* esan, da *aniġoa* emon eustan. Eta ni aaamen nori emon eztakidala. «Zozoak, zozoak», artuko dok euk bere eurea. Abieagaitik esan eustana, egia da; bada atzo iarraitu neutsan ondorik, eta «trapa» badakit non dagoan. Onek doazanean, Patširen kolkora etorriko dira Erramonen zozoak, ikasi daian urrengorako zelan daben erderazko izena.)
 (Ogi-zati bat sakeletik atara ta iango dau.)

IRUGARREN AGERRALDIA

LENGOAK EURAK

ERRAMON. Azpertz naz kastorragaz. Beste ioko bat oraiñ.
 KOISETŠU. ¿Zetara olgako dogu ba?
 ERRAMON. ¿Eztakizue «ioan nintzan merkatura?» Onetaraše olgako dogu. Uts egiten dabena intšaur bat emon bear izango dau. Patšik kantako dau olgetako kantea. Tira Patši. ¿Edertoago daki onek! ¿Eeene!
 PATŠI. Eztot oraiñ gura.
 ERRAMON. Tira, gizona, ¡Au barriz sotilago ta tristeago dago, eztakit zer baiño bere!
 PATŠI. Tira ba. (Bestela onek elitzakez sekularean ioango emendik)
 ERRAMON. (Ordu betean bere eztira orain ioango.)
 PATŠI. (Koipetšuri.) Eu izango az tšakurra, Koipetšu. I katua (beste bati.) I tanboliña; i tšibiltua; i kirkila.

ERESIA

Ioan nintzan merkatura
 erosi neban tšakurtšua
 —Tšakurtšuak.—Au au au.
 —Katutšuak.—Miau miau miau.

—Tšoritsuak.—Tšorro tšiotši.
 Ai ze gaba neukan nik.

(Manuk katuea egin bearrean egin bei tšoriene.)

MANU. Ni enaz katua; ni tšoria naz.
 PATŠI. Ezaz, katua baiño.
 ERRAMON. Eztot katua izan nai; ta kifü.
 TŠOMIN. Isilik egon ba.
Guztiak. (Eresten.) ¡Ai ze gaba neukan nik!
 ERRAMON. Eztot emongo intšaurrik eta eztot emongo; ta enabil geiago.
 KALIS. Ni bere ez. (Iagi beitez guztiak.)
 TŠOMIN. Goazan oraiñ abiatara.
Guztiak. Ori, ori.
 ERRAMON. ¿Abiak emen? ¡Ba! ¿Geutzat dagoz! Emen etšagok ezta... ezta... ezta... sustarrrik bere.
 Dan dana, daukat nik ondo ikusita. Aor erreka-ondoan aldagoz.
 PATŠI. (Asko dakik ik, sarketo orrek.)
 TŠOMIN. Goazan bada erreka-aldera. ¿Ezator, Patši?
 PATŠI. Ez. Aitak esan daust menditik beiak ekarteko, ta mendira ioan bear dot.
 TŠOMIN. Agur ba; bagoaz gu.

IOAN NINTZAN MERKATURA

Allegretto $\text{♩} = 112$

Antšinak o resia, R. M. Azkue abadeak taiatua.

(Patšik)

mf Io - an nin - tzan mer - ka-

(Tšakurtzakoak)

tu ra e - ro si ne - ban tša - kur - tšu - a tša - kur - tšuak au au

(Patšik)

(Katutzakoak)

(Patšik)

rit. (Tšoritzakoak)

au ka - tu - tšu - ak miau miau miau tšo - ri - tšuak tšo - rro tši - o-

Lento (Guztiak) *f**Tempo*

tši Ai ze - ga - ba neu kan nik

(Patšik) *mf*

Io - an nin - tzan mer - ka - tu - ra e - ro - si ne - ban tša - kur-

mf

(Tšakurtzakoak) (Patšik) (Tanbolintzakoak)

tšu - ak tšakur - tšu - ak au au au tan - bo - lin - tšu - ak rrau rrau

(Patšik) *rit.* (Tšilibitutzakoak) *Lento f* (Guztiak)

rrau tši - li - bi - tu - tšu - ak fi - ru li - ru - - li Ai ze-

rit. *f*

Tempo

ga - ba neu - ka - nik.

ff

LAUGARREN AGERRALDIA

PATŠI BAKARRIK

PATŠI. ¡Afa! ¡Aorain bai! Erramon bere eurakaz ioan da. Etorriko az i ostera bere; baia i etorri-orduko, tšoriak egaz egin izango dabe abiak. ¡Egaz! ¡Egaz! Patšin kolkora baiño ez. ¡Iñor eteda? Zaratea entzun dot (Iagi ta ondo begiratura.) Ez; artšoa da. ¡Nire ikarea! Taup taup iabilt biotza. Etšagok ardurarik. Erramonek, bai; ak artuko iok ikarea, etorri ta abiea utsik ikusi daianean. (Begiratu bei alde guztietara.) Iñor ezta

agiri. Gora, Patši (Zugatzeraz igon bei.) Aaamen dago. ¡Au bai polita! Kuna ta guzti dago: bat, bi, iru, lau. ¡Eeeune! ze ederrak. Amea nazalakoa dagoz aoa zabalik. Luma-arrautzatik urten da ia iantzita dagoz. ¡Zozoak etedira! Bai, luma baltza dauke-ta. Zozoakaz *engaña* nenduan Erramonek. Egia esan eustan, *anilloa* artu eragin eustanean. Iñoiz eztau auše baiño beste egirik esan.

BOSKARREN AGERRALDIA

PATŠI TA ERRAMON

ERRAMON. (Atzerantz begira.) An geratu dira kokolo arek. Tripa-alak daukadazala ta... Siniztuta dagoz. Bakarrik nago oraiñ (alde guztietara begiratu bei.) Iñor eztago niri begira, iñok enakus.

PATŠI. (Zugatzean.) Koitadook beti aoa zabalik: gosse izango dira. Tira geldi (Ezpanakaz egin bei zozo-kumeai aoa zabalduko egiten iakena.) Etšera goazanean, artoa emongo dautsuet.

ERRAMON. Onezkero andiak dagoz onek. Gaur atarako dodaz. Aitea ta amea eztira urrun izango.

PATŠI. ¡Ene! (¡Erramon da! ¡Atrapa naul)
(Patši zugatzean ikusieran, luzarotšu begoz isilik.)

ERRAMON. ¡Zer darabilk or, Patši?

PATŠI. ¡Nik?... ¡Emen?... Egon... Aizea artu...

ERRAMON. Aizea artu. ¡Besterik ez?

PATŠI. Geure beiak or etedabilzan iakin gurarik. Eztakit non dagozan da...

ERRAMON. ¡Beiak e? ¡Beiak e? Laster ikusiko dogu. Tira beera, beera.

PATŠI. ¡Zegaitik eta zetarako?

ERRAMON. Beera; esango dauat eta.

PATŠI. Banoa. (Kunaak bestela baitakoan kolkoratu ta zugatze-tik beeratu bei.) Iatzi naz. ¡Zer gura dok?

ERRAMON. Kolkoan daukan zer ori, neuri emotea.

PATŠI. Ori baiño ezpada... Eutsi (Kolkotik ogi-zati bat atara ta eskiniaz.) ¡Gozago da!

ERRAMON. Au ez, au ez; beste gauza bat daukak ik.

PATŠI. Eztaukat besterik.

ERRAMON. Bai, euk atara dozak nire zozo-kunaak. (Oratu ta belarria Patšin saietzean ipinita.) Tšioka dagoz. Neureak dira.

PATŠI. Bai ¿ta zer? Eure zozo-kunaak iaukadazak eta zer?

ERRAMON. Tira ona, neureak dira-ta.

PATŠI. ¡Euri emon! ¡Zegaitik esan atzo ume ta guztiko abiea eukala? Ez esan bear. ¡Eztok gomuta zelan esan eustan euk eze-kiala zelan eben izena? ¡E? ¡Eztok gomuta zelan emon eustan *anilloa*?

ERRAMON. Emoteko niri.

PATŠI. ¡Euri emon!

ERRAMON. Emoteko.

PATŠI. Artu ba lenengo, *anilloa*.

ERRAMON. Eztot gura (Asarrez.) Emoteko niri tšorikunaak.

PATŠI. Ez, ez da ez.

ERRAMON. ¡Ezet? ¡Ezet?

PATŠI. Ezetz, ezetz da ezetz.

(Erramonek Patširi oratu beio ta alkar beera botatea egin beie.)

AZKANENGO AGERRALDIA

EURAK ETA AURRERAGOKO MUTILTŠUAK

TŠOMIN. ¡Ene! Auskaka diardue Patšik eta. Goazan bakeak egitera.

KOIPETŠU. Itši geldi geldi, itši geldi. Ia Patši.

TŠOMIN. Ez, ez. Kalis: oratu Erramoni. (Kalisek Erramoni ta Tšominek Patširi oratu beioe.)

ERRAMON. (Amurruz.) Geu bakarrik gagozanean emon bear izango dozak.

PATŠI. Etorri bila, adurti ori.

TŠOMIN. ¿Zegaitik asarratu zaree?

ERRAMON. Neure zozo-kunaak beronek ostu.

PATŠI. Ondo; *aniġoa*, sarketo drogoso onek, sapokeriz emon eustalako.

KOIPETŠU. Beti *aniġoa*. Berak daukaz gure asarre guztien erruak. Zeuek nai izan ezkerok, maisu erdaldun orrek eztausku galerazoko euskeraz egitea. Mutil bati *aniġoa* emoten dautsanean, errekarat iaurtigi daiala; ta beste bat emonezkero, errekarat a bere; ta beste bat emonezkero, a bere bai. Lenengotan guztiai ederrak emongo daukuz sarteagaz, baiña gero maisuak eztaueukiko *aniġo* geiago erosteko dirurik; eta euskeraz gura-aiña egingo dogu. ¿Iaurti-

giko dogu errekarat neuk daukadana?

Guztiak. Bai, errekarat.

TŠOMIN. Patši: atara *aniġo* ori ta eu aurretik. Beste guztiok San Lorentzok eliz-inguruan lege, kanta ta kanta ioango gara, ta errekarat iaurti, ta ondora doala ikusten dogunean, kanta osterat bere.

ERESIA

Aiko emen dago gure *aniġua*, doala oraintse ibaira; aingirakume ta eskaiġo ariñak bebilz or bira ta bira. Eskoletako erdalkeriak nok eztauz urrun iaurtiko; ta onelan gero euskera ederra bizi izango da betiko. Aiko emen dago gure *aniġua*, doala oraintse ibaira; aingirakume ta eskaiġo ariñak bebilz or bira ta bira.

¡Betiko, betiko, betiko!

GUENA

AIKO EMEN DAGO

Allegretto



Aiko emen da - go



gu - re a - ni - ĩu - a du - a - la oraintše i - bai - ra ain - gi - ra ku - me



ta eskaiĭo a - ri - ñak be - bilz or - bi - ra ta - bi - ra

Batek

Es-ko-le-ta-ko er-dal-ke-ri-ak

nok eztauz u-rrun iaur-ti-ko o-ne-lan ge-ro eus-ke-ra ede-rra

bi-zi-i-zan-go da be-ti-ko be-ti-ko be-ti-ko

S-tik * -ra

be-ti-ko